



MUTURREKO FENOMENO METEOROLOGIKOEI **BURUZKO OHARRA 265/2006 Zkia**

26-(e)an 10:17-(r)etan (ordu lokala) sortua.

(Informazio hau 2006/01/26-(e)ko 19:30-(r)etan (ordu lokala) eguneratuko da, baldin eta lehenago egitea premiazkoa ez bada).

◆ Zergatia:

Elurra: Prezipitazioa elur moduan 1000 m-tik Behera

◆ Muturreko Fenomenoen Iragarpena:

Gaur, osteguna, arratsalde-gauean han-hemenka prezipitazio arina egitea espero da. Eguerdian elur-kota 1200 m inguruan kokatuko da, arratsaldean jaitsi eta azken orduetan 200-300 m inguruan kokatuz.

Gaur, osteguna, espero diren elurtzaren lodierak:

1000 m-ra 0-2 cm, 600 m-ra 0-1 cm.

Bihar, ostirala, han-hemenka prezipitazio arina egitea espero da. Ekaitzak izan daitezke, bereziki eguneko bigarren partean. Elur-kota 200 m inguruan kokatuko da, noizbehinka itsasmailara jaitsi daitekeelarik.

Bihar, ostirala, espero diren elurtzaren lodierak:

1000 m-ra 5-10 cm, 600 m-ra 2-5 cm, eta 200 m-ra 0-2 cm.

◆ Behatutako Muturreko Fenomeno Meteorologikoak:

Iragarpen-buletin ofizialeko testu osoa:

2006/01/26-(e)an egindako iragarpena. 07:36-(r)etan (ordu lokala).

ABISUA: gaur, osteguna, eguerdian elur-kota 1200 m inguruan kokatuko da, arratsaldean jaitsi eta azken orduetan 200-300 m inguruan kokatuz. Ostiralean elur-kota 200 m inguruan kokatuko da, noizbehinka itsasmailara jaitsi daitekeelarik.

osteguna (2006/01/26)

Goizean lanbroa eta lainoa agertuko da, zenbait lekutan iraunkorrak izan daitezkeelarik. Eguneke lehen partean zerua hodei gutxirekin egongo da, erdi mailako hodei eta goi-hodeien tarteekin. Arratsaldean hodeitza handitu egingo da, zerua hodeitsu geratuz azken orduetan eta han-hemenka prezipitazio arina eginez. Eguerdian elur-kota 1200 m inguruan kokatuko da, arratsaldean jaitsi eta azken orduetan 200-300 m inguruan kokatuz. Ekialdeko haize ahul-bizia ibiliko da, ipar-ekialdekoa nagusi izanik. Tenperatura maximoak moderatuki jaitsiko dira.

Iragarritako tenperatura Maximoak:

Donostia 8°C, Bilbao 9°C, Gasteiz 5°C eta Arrasate 7°C.

ostirala (2006/01/27)

Zerua hodeitsu egongo da, tarte oso hodeitsuekin. Han-hemenka prezipitazio arina egingo du. Ekaitzak izan daitezke, bereziki eguneke bigarren partean. Elur-kota 200 m inguruan kokatuko da, noizbehinka itsasmailara jaitsiz. Ipar-ekialdeko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogorren batekin. Tenperatura minimoak egonkor mantendu edo gutxi jaitsiko dira, bereziki kostaldean eta maximoak moderatuki edo nabarmenki jaitsiko dira. Izozte ahul-ertainak izango dira, barnealdeko zenbait lekutan gogorak izan daitezkeelarik.

Iragarritako tenperatura Minimoak/Maximoak:

Donostia 1/4°C, Bilbao 1/5°C, Gasteiz -2/2°C eta Arrasate -1/3°C.

larunbata (2006/01/28)

Zerua hodeitsu egongo da, tarte oso hodeitsuekin. Han-hemenka prezipitazio arina egingo du. Ekaitzak izan daitezke, bereziki eguneke lehen partean. Elur-kota 200 m inguruan kokatuko da, noizbehinka itsasmailara jaitsi daitekeelarik. Ipar-ekialdeko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogorren batekin kostaldean eta mendi inguruetan. Tenperatura egonkor mantenduko da. Izozte ahul-ertainak izango dira, barnealdeko zenbait lekutan gogorak izan daitezkeelarik.

igandea (2006/01/29)

Zerua hodeitsu egongo da, tarte oso hodeitsuekin lurraldearen hegoaldean. Eguerditik aurrera han-hemenka prezipitazio arina egingo du, sarriagoak izango direlarik lurraldearen hegoaldean. Goizaldean elur-kota 200-300 m inguruan kokatuko da, egunean zehar 500-600 m-ra igo eta gauean 1000 m inguruan kokatuz. Ekialdeko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogorrekin eta oso gogorren batekin kostaldean eta mendi inguruetan. Tenperatura minimoak egonkor mantendu eta maximoak gutxi edo moderatuki igoko dira. Izozte ahul-ertainak izango dira, barnealdeko zenbait lekutan gogorak izan daitezkeelarik.